

ASTEKARIA: 37. atala

DATA: 2025/03/14

GUREAN

LEHEN SOROSPENAK, IKASTOLAN

Lehen Sorospenei buruzko ikastaroa egin dute gaur DBHko 4. mailako ikasleek. Donostiako Udalak antolatutako formakuntza da eta gure ikastolak azken zazpi urte hauetan hartu du parte. Bihotz biriken susperketa ikastaroa da eta ikastola eta ikastetxe gehienetan egiten da. Ikasleak adi-adi egoten dira eta beraien zalantzak eta galderak argitzeko probesten dute aukera. Bideo interesgarriak ikusi ondoren, alde praktikoa lantzen dute. Hemendik aurrera, larrialdi baten aurrean, gure ikasleak prest egotea espero dugu!

GURE INGURUAN



TXISTULARIEN ALBORADA

NON: HONDARRIBIA
NOIZ: IGANDEAN, 8:00ETAN

Hondarribiko Txistu Taldeak alborada jotzen du igandero goizeko 8:00etan Alde Zaharrean. Ibilbideak Amute-Kosta, Mendelu, Portu eta Soroetatik jarraitzen du. Igande honetan, musikaz gozatzeko aitzakia ederra!



2025KO GIPUZKOAKO BATEL LIGAREN 8. JARDUNALDIA

NON: GETARIA
NOIZ: IGANDEAN

Batel txapelketa Gipuzkoako Arraun Federazioaren lehiaketa federatu ofiziala da eta aurten Getarian ospatuko da zazpigarren jardunaldia. Tripulatzaille kopurua 4 arraunlari eta patroï batekoa da. Txapelketa hau jardunaldi bikoitzean jokutzen da, alde batetik "sailkapen estropada" bat eta bestea "prontzietako txapelketako estropada".

Ligako azken estropada Malkorbe hondartzaren aurrean jokatuko da (portuaren ondoan). Txapelketa amaitzean, liga amaierako sariak banatuko dira.

